

a. Entzumena	
a.1. Gai izatea entzundako mezu errazak ulertzeko, norbaitek oso astiro hitz egiten duenean, etenaldi luzeak eginez eta kontu handiz ahoskatuz.	Lagun baten aurkezpenean, telebistako lehiaketa batean: nor den, nongoa den, zenbat urte dituen, norekin etorri den, non bizi den, zer gustatzen zaion...
a.2. Gai izango da helbide errazak ulertzeko: nola iritsi X puntutik Y puntura, oinez edo garraio publikoaren bidez.	Posposizio errazak, nondik nora joan, nola joan, denbora markatzekoak: orain, gero, geroago...
a.3. Gai izatea ulertzeko astiro eta kontu handiz egindako galderak (nongoa den, norekin bizi...) eta argibideak, eta instrukzio labur eta errazak (jarri zutik!, etorri hona!).	Ikastaro batean izena telefonoz emateko adibidez.
a.4. Gai izatea zenbakiak, prezioak eta orduak ulertzeko.	Telefono zenbakiak, adina, orduak eta eguneko zatiak
b. Irakurmena	
b.1. Gai izatea iragarki edo posterretan azaltzen den emanaldi edo filma aukeratzeko, baita non den eta zer ordutan hasiko den ulertzeko.	Antzerki, zinema, kontzertuetako kartelak, orduak eta tokiak antzeman.
b.2. Gai izatea galdera-sorta bat ulertzeko (izena emateko, hotelean izena emateko) eta bere buruaz informazio nagusia emateko (izena, abizena, jaioteguna, herritartasuna).	Ikastaro batean izena emateko.
b.3. Gai izatea egunero kalean aurkitzen ditugun ikurretan dauden hitzak eta esaldiak (adibidez, "geltokia", "aparkalekua", "ez aparkatu", "ez erre") ulertzeko.	
b.4. Gai izatea postaletako mezu labur eta errazak ulertzeko; oporretako agurrak, adibidez.	Oporretako postalak. Non dagoen, zer egiten ari, zer egin eta, zer egingo duen adierazi; nolako tokia den deskribatu; zer gustatzen zaion eta zer ez; goraintziak eta abar eman.
b.5. Gai izatea eguneroko egoeretan, lagunak edo lankideek idatzitako mezu errazak ulertzeko; "lauretarako itzuliko naiz", adibidez.	Esaldi bakunak eta zuzenak badira, orduak, tokiak, pertsonak eta ekintza arruntak badira.
c. Elkarreragina	
c.1. Gai izatea norbait aurkezteko eta oinarrizko agurrak erabiltzeko ("kaixo", "agur", "bihar arte"...).	Aurkeztean nor den, familia-harremana zein den, nongoa, non bizi den, zein lanbide duen. Non eta nola ezagutu zuen: ez.
c.2. Gai izatea galdera errazak egiteko eta erantzuteko; baieztapenak egiteko eta erantzuteko gai arrunt eta ezagunetan.	Gustuak, ekintza arruntak, zer egiten duen normalean, zer egingo duen...
c.3. Gai izatea modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe dago, honek prest egon behar baitu esandakoa astiro errepikatuz, birformulatzeko edo nahi duena esaten laguntzeko.	Keinuak erabiliz, adostasuna, desadostasuna eman.
c.4. Erosketa errazak egin ditzake keinuz lagunduta edo eskuaz seinalatuta.	Janari dendan, jantzi dendan, tabernan.
c.5. Gai izatea zenbakiak, zenbatekoak, salneurriak eta orduak erabiltzeko.	Janari dendan, jantzi dendan, tabernan. Eragiketa matematikoak ez.
c.6. Gai izatea jendeari gauzak eskatu eta emateko.	Nahi duzu...? Emango didazu...?
c.7. Gai izatea jendeari galdera sinpleak egiteko (non bizi diren, ezagutzen duten jendea, dauzkaten gauzak etab.); eta galdera hauek poliki eta argi eginez gero, gai izatea erantzuteko.	Turismoan egin ohi diren azaleko harremanetan adibidez.
c.8. Gai izatea denbora adierazteko, "hurrengo astean", "joan den ostiralean", "azaroan" "hiruretan" bezalako esamoldeekin.	Noiz zer egingo duen adierazteko, adibidez.
d. Ahozko adierazpena	
d.1. Gai izatea bere gauza pertsonalekoen berri emateko: helbidea, telefono-zenbakia, herritartasuna, adina, familia, eta zaletasunak.	Ikastaro batean izena emateko, adibidez
d.2. Gai izatea non bizi den deskribatzeko.	Etxea eta herria; adjektibo arruntak erabiliz, elementu ezberdinak non dauden esanez, gustukoak dituen ala ez adieraziz, toki bakoitzean zer egiten duen esanez
e. Idazmena	
e.1. Gai izatea berari buruzko galdera-sortak betetzeko (lanpostua, adina, helbidea, zaletasunak).	Ikastaro baterako formulario bete.
e.2. Gai izatea zorion-txartelak idazteko (urtebetetze-txartela, esaterako).	Zorion txartelak, gonbidapenak egin.
e.3. Gai izatea postal sinpleak idazteko (oporretako agurrekin,	Turismoko postalak, eguberrietakoak.

adibidez).	
e.4. Gai izatea norbaiti oharra idazteko, non dagoen edo non elkartuko garen esanez.	Noiz geldituko diren, zertarako, norekin, nola joango diren, zein ordutan...
e.5. Gai izatea berari buruzko perpausak eta esaldi errazak idazteko: non bizi den eta zer egiten duen, adibidez.	<i>Pen friend</i> moduko eskutitzetan, aurkezpenak egiten direnean.
f. Estrategiak	
f.1. Gai izatea ulertzen ez duena esateko.	Ez dut ulertzen, barkatu...
f.2. Gai izatea, oso modu sinplean, norbaiti esan duena errepika dezan eskatzeko.	Esan berriro, nola esaten da... zer da....?